

# Murrizketei aurre egitea borondate kontua da

EAEn berriki eduki dugun hauteskunde lehia giroan, alderdi ezberdinak ordezkariak, hemen, EAEn Rajoyen murrizketei aurre egingo zitzaiela sinistarazi nahi izan digute behin eta berriz, eta adierazgarri edo berme gisa, Gabonetako aparteko ordainsaria erabili dute, zerbitzu publikoetako langileei berau ordainduko zitzaiela esanez.

Adierazgarria da, baina ez ustekabea, hauteskunde emaitza onak lortzeko helburuarekin, behin eta berriz

Dekretuaren aurka daudela esanez eginiko adierazpenak egin dituzten administrazioetako arduradunek, azkenean, berau aplikatzea erabaki dutela. Erabaki hau hartzera derrigortuta daudela esan dute, dekretua ez aplikatzeko arazo teknikoak daudela eta murrizketei alternatiba errealki ezin dela aurkitu.

ELAk planteamendu hau errotik baztertzen du. Murrizketak ez aplikatzea eta alternatibak bilatzea, borondate politiko kontua da.

Borondate politikoa izanez gero, murrizketak ezartzen dituen dekretua ez aplikatzeko mekanismo errealkak egon badaude eta Hego Euskal Herriko, eta kanpoko, instituzio askotan aplikatzen ari dira jada.

Bestalde, murrizketak aplikatzea nahi duten instituzioetako buruek, langileak gogogabetu eta kikiltzeko helburuarekin, eztabaidea juridikora bideratzen dute arazoa. Beste batzuk erabakitako neurriak kudeatu beharra daukatela esanez eta neurri hauek derrigorrez bete beharrekoak direla eta alternatibarik ez dutela sinestarazi nahian.

**Itxurakeriaren  
ondoren,  
hitza betetzeko  
ordua da**

Historikoki, Madrilek helburu bat bilatu izan du: Lan baldintza k homogeneizatzea, beherantza noski, eta erabakiak hartzeko esparruak zentralizatzea.

Baina euskal langileon borrokarekin eta Hego Euskal Herriko administrazio ezberdinen borondatearekin, hemen, lan baldintza hobeak lortu izan ditugu (asteko 35 orduak, Udalhitz akordioa...).

**Egiten  
dutena dira,  
ez esaten  
dutena**

Euskal langileriaren lan baldintzen aldeko eta kanpoko injerentziaren aurkako erabaki argi eta sutsu bat ez hartzeak, berez, murrizketak onartzea dakar eta Madrilen erabakitzetan diren neurriak babestu eta aplikatzen dituzten instituzioak, berauen kolaboratzaile dira.

Aparteko ordainsariari dagokionez, 2013ko ordainsariak aurreratzeko proposamenak, makillaje hutsa dira. Langile eta gizarteari iruzur egitea da, 2012ko ordainsaria ez bait da ordainduko eta honek, langile hauentzako, beraien urteko soldatan %7ko jaitsiera bat suposatzen du. Azken hiru urteetan jasandako soldata murrizketa metatua, %20 izango litzateke.

Behin amore ematen duenak, ez du behin ere kanpoko erabakiei argi eta garbi aurre egiteko momentu egokirik inoiz aurkituko, hauek, iraganean eta orain bezala, etorkizunean ere hartuko baitira.

ELAk, zerbitzu publikoetako langile guztiei dei egiten die, murrizketa hauen aurkako mobilizazioekin bat egin dezaten. Langile klasearen lan eta bizi baldintzetan ondorio kaltegarriak eragiten dituzten neurri bidegabe hauek bertan behera uzteko.

Borroka eta mobilizazioarekin posible da eta lortuko dugu.



# Hacer frente a los recortes es cuestión de voluntad

Antes y durante la última campaña electoral de la CAPV, representantes de las distintas fuerzas políticas, insistieron reiteradamente, en que aquí, en la CAPV, se iba a hacer frente a los recortes de Rajoy y que se procedería a abonar la paga extra de Diciembre a los trabajadores y trabajadoras de los servicios públicos.

Ahora resulta cuanto menos curioso, que no sorpresivo, que tras las declaraciones propagandísticas realizadas con la única intención de buscar réditos electorales, rectores de administraciones vascas que han manifestado en reiteradas ocasiones estar radicalmente en contra del decreto, hayan optado finalmente por aplicar el mismo. Para ello, aducen problemas de carácter técnico que imposibilitan la inaplicación del decreto o la búsqueda de alternativas reales a los recortes.

Desde ELA queremos desenmascarar este planteamiento; la no aplicación de los recortes y las alternativas es cuestión de voluntad política.

En caso de haber voluntad, existen mecanismos reales para dejar sin efecto el decreto de recortes, tal y como está ocurriendo en algunas instituciones tanto de Hego Euskal Herria como fuera de ella.

Quien por contra quiere aplicar los recortes busca enredar a la clase trabajadora en una maraña jurídica que la desanime y convierta la política en una mera gestión de lo que deciden otros, vendiendo cada medida como obligatoria y sin alternativa posible.

## Después del teatro, la hora de la verdad

Históricamente, ante decisiones de Madrid que buscaban homogeneizar a la baja las condiciones laborales y centralizar la toma de decisiones, la lucha de los trabajadores y trabajadoras vascos junto con la voluntad de distintas administraciones de Hego Euskal Herria, hizo posible que se lograran condiciones laborales más beneficiosas (35 horas semanales, acuerdo del Udalhitz...).

*Son lo que hacen, no lo que dicen.*

No adoptar una decisión clara y firme en defensa de las condiciones laborales de la clase trabajadora vasca y en contra de la injerencia externa, supone de facto la aceptación de los recortes y ser el colaborador necesario que aplica las medidas que se deciden en Madrid.

Respecto a la paga extra, las labores de maquillaje adelantando las pagas del año 2013 al principio de cada semestre, no buscan sino engañar a los trabajadores y trabajadoras y a la sociedad, puesto que la paga del año 2012 no se va a abonar y por tanto éstos van a cobrar un 7% menos de salario durante este año. La reducción salarial acumulada durante estos 3 últimos años asciendería al 20% de la masa salarial anual.

Quien claudica una vez nunca encontrará el momento oportuno para hacer frente de manera clara y firme a las decisiones externas. Estas, al igual que en el pasado y en el presente, se seguirán adoptando en el futuro.

Desde ELA realizamos un llamamiento a todos los trabajadores y trabajadoras de los servicios públicos para que se sumen a la movilización en contra de estos recortes. Es la única garantía posible para lograr dejar sin efecto estas y otras medidas injustas que afectan a las condiciones laborales y de vida de toda la clase trabajadora, que se ve continuamente empobrecida por estas decisiones

Mediante la lucha y la movilización es posible lograrlo.

